

1. KASUA

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, TEKNIKARIEN AZPIESKALAN, GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN MOTAN, PSIKOLOGOAREN ESPEZIALITATEAN KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO DEITUTAKO HAUTAPROBAK (Deialdia 2017ko abuztuaren 2an argitaratu zen, BAOren 146. zenbakian). BIGARREN AZTERKETA.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuaren txosten bat jaso da, gizarte-langileak egindako elkarrizketa biri buruzko datuak jasotzen dituen. Elkarrizketa horiek egiteko arrazoiak izan dira, batetik, adingabearen eskolatik jaso den informazioa, eta, bestetik, osasun-zentrotik/pediatriako zentrotik jaso dena.

Eremu horretako gizarte-langileak egindako elkarrizketetatik datu hauek eskuratu dira:

a) NEREA.

Nerea 2 urte eta 5 hilabeteko umea da, eta bere aita Iñaki eta ama Mariarekin bizi da. Ez dago familiaren aurreko egoerari buruzko daturik.

Nereak ez du neba-arrebarik.

Ez dago datu esanguratsurik neskatilaren jaiotzari eta lehen urteei dagokienez.

Eskolara modu irregularrean joaten da; datu hauek eman ditu eskolak Nereari buruz:

- Ez du hizkuntza espresiborik erabiltzen, eta interakzio sozial eskasa du. Hala ere, bere intereseko objektuak seinalatzen ditu, eta keinu bidez eskatzen du,
 - ia ez du begirada pausatzen,
 - interes gutxi adierazten du beste ume eta heldu batzuekiko,
 - amarekin interakzio gutxi izaten du jolasean,
 - jostailuei eragiteko joera du,
 - ez dio bere izenari erantzuten,
 - eta batzuetan estereotipiak izaten ditu.

Pediatrak honako hau jakinarazi dio gizarte-langileari:

- Umea askotan geratu dela pediatraren errebisioetara joan gabe; ez dela errespetatu umeak txertatzeko egutegia,
- jasota dagoela ez direla bete osasunari eta zaintzari dagokienez eman dituen jarraibideak,
- gainera, adierazi du jakinarazpen honen arrazoi den errebisioan (azkena), umearen azalean apur bat kolore desberdina duten eremuak ikusi dituela (horixkak, besoen goiko aldean), eta tratu txarren ondorio izan daitezkeela (adibidez, gogor eutsi izana askoz handiagoa den pertsona batek, iraganean).



Adierazi du, azalaren koloreari buruz galdetzerakoan amak garrantzia kentzen diola egoerari, eta oinarri handirik gabeko arrazoiak ematen dituela, bai medikuaren errebisioetara eraman ez izana justifikatzeko, bai umeak azalean dituen markak justifikatzeko.

Azkenik, pediatria harrিতuta agertu da umeari dagokionez; izan ere, nahiz eta ez duen hitzik egiten, ikusi du soinu guturalak egiten dituela, kantari aritzen dela, agurrari erantzuten diola, musuak bidaltzen dituela... Une horietan begiratu egiten du, interakzio soziala bilatzen du eta hartan parte hartzen du, afektua onartu eta erakusten du, komunikatzeko intentzioa agertzen du...

b) MARÍA

María, Nerearen ama, emakume gaztea da (29 urte), eta elkarrizketara makillaje eta arropa gehiegirekin (desegokia klimatologia kontuan hartuta) agertu zen.

Umearen egoera aztertzerakoan, Mariák garrantzia kendu zion berriro ere eskolara eta pediatararengana ez eramateari, eta oinarri handirik gabeko arrazoiak eman zituen orban horixken jatorria azaltzeko («kolperen bat izango zen»; «oso mugitua da», «ez du kasurik egiten», «ez dut lortzen geldi geratzea gogor eutsi arte»; «batzuetan ezin dut berarekin, kontrola galtzen dut»; «ikaratu egiten naiz geldi egon dadin egiten ditudan gauzekin»...).

Gizarte-langileak Mariári galdetu dio zergatik ez den etorri lñaki elkarrizketara (hari ere hitzordua eman zitzaion). Mariák, urduri, azaldu du ez diola ezer esan nahi izan bere bikoteari lñaki ez delako asko arduratzen umeaz, pentsatzen duelako «ama batek egin beharreko kontuak» direla; «gaur hemen nagoela jakingo balu asko haserretuko litzateke»; «beti kritikitzen du Nerea zaintzeko dudan gaitasuna», «esaten dit ez dudala ezertarako balio, eta egiten dudan gutxia gaizki egiten dudala»; «behin baino sarriagotan, erditik kentzeari buruzko pentsamendua ere izan dut».

Gaineratu du, sarritan ahalegindu dela umea hartu eta amaren etxera joaten, baina azkenean ez duela egin lñaki konturatu egin delako. lñakiren erreakzioa izan da dirua kentzea oinarrizko erosketetarako, adibidez, pixohialak; mugikorra kentzea; mehatxu egitea, ez diola etxetik irteten utziko eta umea kenduko diola esanez...

Esan du, batzuetan, ordu asko egiten dituela ohean, eta ez duela gogorik izaten altxatzeko, garbitzeko ez janzteko; egoeraren errudun sentitzen dela, nahasita, nekatuta, segurtasunik gabe...

Ez da irteten eguneko oinarrizko erosketak egiten, eta umeak eta berak hozkailuan dagoen edozer jaten igarotzen dute eguna.

Aitortzen du batzuetan ez duela indarrik umea zaintzeko, eta telebista aurrean uzten duela ordu askotan.

Une horietan ere ez da amarengana joan; hura da lagundu dezakeen pertsona bakarra, baina ez du bere gauzekin arduratu nahi.

c) FAMILIA ZABALA.

Espedienteko datuen arabera, lñakiren familiak ez du izan presentzia aktiborik umearen bizitzan, eta lñakirekin izan duten harremana oso hotza izan da.

Maríaren familiako kide bakarra amona da, Dolores.

Doloresek beti izan du harreman afektiboa Nerea eta Maríarekin, eta interes handia erakutsi du beren ongizateari dagokionez.



Honako hau eskatzen da:

A.- BABESGABETASUNAREN ARLOA (5 puntu, gehienez).

Ebaluazioa eta esku-hartzeko proposamena: Babes-plan indibiduala (PIP)

- Nerearen babesgabetasun-egoeraren hasierako ebaluazioa:
 - Prozedura, informazio-iturriak, baloratu beharreko alderdiak, tresnak, etab.
- Hasierako babes-neurria, aurrekarien eta eskuragarri dagoen informazioaren arabera:
 - Helburuak, neurriak ezartzea, alderdiei eman beharreko informazioa, profesionalen baliabideak eta laguntza, adingabearen eta familiaren arteko harremana, etab.
- Esku-hartze plan egonkorra garatzeko proposamena:
 - Babes-neurri egonkorra, helburuak, baliabide profesionalak, laguntza-programak, etab.

B.- DESGAITASUNAREN ARLOA (3 puntu, gehienez).

- Nerearen diagnostikorako hurbilketa.
- Nereari eman beharreko orientazioak, tratamenduak, profesionalen baliabideak, desgaitasunaren ebaluazioa.

C.- EMAKUMEAREN ARLOA (2 puntu, gehienez).

- Mariaren egoeraren ebaluazioa.
 - Esku-hartzeko proposamena, helburuak, profesionalen baliabideak, programak, etab.
-

PRUEBAS SELECTIVAS CONVOCADAS PARA EL INGRESO EN EL FUNCIONARIADO DE CARRERA EN LA ESCALA DE ADMINISTRACION ESPECIAL, SUBESCALA TÉCNICA, CLASE: TÉCNICOS/AS SUPERIORES, ESPECIALIDAD: PSICOLOGO/A (convocatoria publicada en el B.O.B. nº 146, de 2 de agosto de 2017). SEGUNDO EXAMEN.

Se recibe informe desde el Servicio Social de Base con datos relativos a dos entrevistas realizadas por la trabajadora social, motivadas por información recibida tanto desde el colegio donde acude la menor como desde el centro médico/pediatría.

De las entrevistas realizadas por la trabajadora social de zona se obtienen los siguientes datos:

a) NEREA.

Nerea es una niña de 2 años y 5 meses de edad, que convive con su padre, Iñaki y su madre María.

No se dispone de datos previos de la situación familiar.

Nerea no tiene hermanos/as.

No hay datos significativos respecto al nacimiento y los primeros años de vida de la niña.

El colegio, al que acude de manera irregular, informa que Nerea:

- presenta ausencia de lenguaje expresivo y escasa interacción social, aunque sí señala objetos de su interés y pide con gestos,
- apenas fija la mirada,
- presenta escaso interés por otros niños, niñas y personas adultas,
- muestra poca interacción con su madre durante juego,
- tiene tendencia a agitar los juguetes,
- no responde a su nombre y
- presenta estereotipias ocasionales.

La pediatra, a su vez, pone en conocimiento de la trabajadora social:

- que la niña ha faltado en varias ocasiones a las revisiones pediátricas y que no ha respetado el calendario de vacunación infantil,
- que tiene constancia de que no se han seguido las pautas indicadas en relación a la salud y cuidados dadas por ella,
- añade que en la última revisión que motiva esta comunicación, pudo observar zonas de ligera coloración diferente en la piel de la niña (amarillentas, en la zona superior de los brazos), sospechosas de posible maltrato (como, por ejemplo, haber sido fuertemente agarrada, en el pasado, por parte de una persona de mucha mayor corpulencia).



Preguntada al respecto indica que la madre minimiza la situación y refiere motivos vagos para justificar tanto las ausencias a las revisiones médicas como para la presencia de las marcas en la piel.

Por último, la pediatra muestra su sorpresa respecto a la niña ya que aunque no ha observado lenguaje oral, percibe que sí emite sonidos guturales, canturrea, que responde al saludo, lanza besos...en estos momentos contacta visualmente, busca y participa de la interacción social, acepta y muestra afecto, tiene intención de comunicar...

b) MARÍA

María, la madre de Nerea, es una mujer joven (29 años), que apareció en la entrevista maquillada en exceso y con ropa de abrigo (inadecuada a la climatología).

Al explorar la situación de la niña, María vuelve a quitar importancia a la falta de asistencia al colegio y a la pediatra y trata con motivos vagos de dar una explicación a las manchas amarillentas (*"habrá sido algún golpe", "es muy movida, desobediente, no consigo que se pare hasta que no la agarro fuerte", "a veces no puedo con ella, pierdo el control" y "me asustan las cosas que llevo a hacer para pararla"...*).

La trabajadora social pregunta a María por la ausencia de Iñaki a la entrevista (también estaba citado). María, nerviosa, indica que no ha querido decir nada a su pareja ya que Iñaki no se preocupa mucho por la menor porque piensa *"que son labores propias de una madre" "de haber sabido que hoy estoy aquí se hubiera enfadado mucho" "siempre critica mi capacidad para cuidar a Nerea" "me dice que no sirvo para hacer nada y que lo poco que hago lo hago mal", "he llegado, incluso, más de una vez, a pensar en quitarme de en medio.."*

Añade que muchas veces ha intentado coger a la niña e irse a vivir con su madre, pero al final no ha seguido adelante porque Iñaki se ha dado cuenta y su reacción ha sido quitarle el móvil, amenazarle con no dejarle salir de casa, con quitarle a la niña....

Refiere que, en ocasiones, permanece muchas horas en la cama, sin ganas de levantarse ni de asearse ni vestirse y que se siente culpable por lo que ocurre, confusa, cansada, insegura.....

No sale a realizar las compras básicas para el día y entonces la niña y ella pasan el día comiendo cualquier cosa que encuentra en la nevera.

Reconoce que, a veces, no tiene fuerzas para cuidar a su hija y la deja delante de la televisión durante horas.

Tampoco en estas ocasiones ha acudido a su madre, única persona a la que podría pedir ayuda, porque no quiere preocuparla con sus cosas.

c) FAMILIA EXTENSA.

Según los datos que constan en el expediente, la familia de Iñaki no ha tenido presencia activa en la vida de la niña y siempre han mantenido una relación muy distante con el propio Iñaki.

La familia de María queda reducida a la abuela, Dolores.

Dolores siempre ha mantenido relación afectiva con Nerea y María y mostrado elevado interés en su bienestar.



Se pide:

A.- AMBITO DE LA DESPROTECCIÓN (hasta 5 puntos).

Evaluación y propuesta de Intervención: Plan Individualizado de Protección –P.I.P-

- Valoración inicial de la situación de desprotección de Nerea:
 - Procedimiento, fuentes de información, aspectos a valorar, instrumentos, etc.
- Medida de Protección inicial con los antecedentes e información disponible:
 - Objetivos, implementación de las medidas, información a las partes, recursos y apoyos profesionales, relación menor-familia, etc.
- Propuesta para el desarrollo de un plan de intervención con carácter estable:
 - Medida de protección estable, objetivos, recursos profesionales, programas de apoyo, etc..

B.- AMBITO DE LA DISCAPACIDAD (hasta 3 puntos).

- Aproximación diagnóstica de Nerea.
- Orientaciones, tratamientos, recursos profesionales y valoración de la discapacidad de Nerea.

C.- AMBITO DE MUJER (hasta 2 puntos).

- Valoración de la situación de María.
 - Propuesta de intervención, objetivos, recursos profesionales, programas, etc..
-